



PADELA
2018ko ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXVII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Padel Federazioarekin lankidetzan, 2018ko maiatzaren 26an, Arrasateko Musakolako Udal Kiroldegian. Hauxe duzue jokoen araudia:

1. JOKO SISTEMA

Lurralde Historiko bakoitzak nesken bikote bat eta mutilen beste bat izango ditu ordezkari, baita kapitain bat ere.

Bi talde eratuko dira generoaren arabera:

- A taldea: #2 de ARA, #1 de BIZ y #2 de GIP
- B taldea: #1 de ARA, #2 de BIZ y #1 de GIP

Bi taldek hartuko dute parte jokoa, bata neskena eta mutilena bestea, bakoitzean hiru bikote izango direlarik, denek denen kontra jokatuz.

Partidatan 2 setetan onena baloratuko da, 6 jokoetan berdinketa eman ezker, tie-break bat jokatuko da bakoitzean 7 puntu lortu arte. Setetan berdinketa eman ezker, 3. Set a super tie-break bat jokatuko da 10 puntutan.

Partidak hurrengo taularen arabera jokatuko dira:

TXANDA/TALDEA	A TALDEA	B TALDEA
TURN0 1	#2 ARA vs #2 GIP	#2 BIZ vs #1 GIP
TURN0 2	#1 BIZ vs #2 GIP	#1 ARA vs #2 BIZ
TURN0 3	#2 ARA vs #1 BIZ	#1 ARA vs #1 GIP

3 bikoteen arteko berdinketa eman ezker, taldeko sailkapena eratzeko irizpide hauek izango dira kontuan (azaldutako garrantzi ordena kontuan izanda):

1. Set-en arteko ezberdintasuna
2. Jokoen arteko ezberdintasuna.



3 bikoteen arteko berdintasuna desagitean, berdindutako bi bikoteen arteko emaitzak hartuko dira kontuan.

Taldeko sailkapenaren amaieran, postu guztiak jokatuko dira:

- #1 A taldea vs #1 B taldea
- #2 A taldea vs #2 B taldea
- #3 A taldea vs #3 B taldea

2. PARTAIDETZA

2004 eta 2005ean jaiotako jokalariek bakarrik hartu dezakete parte, infantil kategoria alegia, eskola kiroleko lizentzia jabeak soilik.

Espresuki parte hartzea debekatuta izango dute edozein lurralde edo autonomiaren izenean, 2017/2018 denboraldian zehar lizentzia federatua duten edo izan duten jokalariek.

Mutilen eta nesken 2 bikote lurraldeko sailkatuko dira. Lurralde bakoitzeko txapelketetan sailkatuko dira Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan parte hartu ahal izateko.

3. IZEN EMATEAK:

Lurraldeko Federazioak dagokien Foru Aldundietan izen emateak bideratu beharko dituzte:

- ✓ 2 bikote mutiletan, lurraldeko txapelketetan emandako emaitzen arabera.
- ✓ 2 bikote nesketan, lurraldeko txapelketetan emandako emaitzen arabera.
- ✓ 2 bikote mutiletan ordezkioak, lurraldeko txapelketetan emandako emaitzen arabera.
- ✓ 2 bikote nesketan ordezkioak, lurraldeko txapelketetan emandako emaitzen arabera



Partaide bakoitzaren izen abizenak, NAN, eskola kirolaren lizentzia eta jaiotze data zehaztu beharko dute.

4. SARIAK:

Sailkapenaren arabera bikoteak domina bana izango dute kategoria bakoitzeko, 1go, 2. eta 3. Sailkatuek izango dute.

5. BESTE BATZUK

Antolatzaileek jatekoa eta ura emango diete parte-hartzaile guztiei.

Behar dutenei autobus-zerbitzua eskainiko zaie (ordutegiak eta irteera- eta helmuga-lekuak jakinarazi egingo zaizkizue).

6. ARBITRAJEA

Euskadiko Padel federazioak jokoen epaile arbitroa izendatuko du.

7. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

8. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

1. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
2. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
3. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa



- 4.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2018ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren deialdia egiteko dena
5. -Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2018ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- 6.- Euskadiko Padel federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.